# MUNGIARRA

www.mungia.org

## Aurretik pertsonak
Hiritartasun kanpaina, Mungia danon artean jagon daigun

## Nortasuna
Berbalagun, euskeraz berba egiteko aukera ezin hobea

## Garraioa
Urdulizko Ospitalera joateko autobus-geltoki gehiago Mungian



# Kirola ume guztientzat










56
enero 2017ko urtarrila

# Kaixo mungiarra:



Gabon sasoia pasa eta gero, beharrean jarraituten dogu. Udal aurrekontuak onartu doguz eta oinarrizko datu batzuen barri emoten deutsuegu. Izan bere, arlo honetan gero eta informazino gehiago eskainiko dogu, Udal aurrekontuen ganeko zehaztasun guztiak eskuragarri euki daizuezan. Laster web orrialdean izango dozue horren beste adibide bat. Oso garrantzitsua da jakitea nondik datozan Udalaren diruak, zergaitik daukagun daukaguna eta ez gehiago edo gitxiago, eta zertan gastetan dogun. Argi daukagu, parte hartze eraginkorra eukiteko, informazinoa dala ezinbesteko oinarria, eta horretan jarduten jarraituko dogu.

2017rako aurrekontuetan, gure lerro estrategikoetan sakondu dogu. Formazino eta enplegurako, eta Gizartekintzarako diruak handitu egin doguz, auzoetarako apustuari eutsi egin deutsagu, gure alkarteakaz alkarlanean jarraituko dogu, gazteakazko harremana sendotu egin gura dogu eta, horretarako, kale hezitzaile bat kontratatuko dogu lonjetara joan daiten, euren gogoak eta arazoak entzuteko eta, horren arabera, ekintza barriak jarriko doguz martxan edota daukaguzanak indartu. Umeentzako jolas gune estali bat eraikiteko asmoa bere badaukagu eta foro zabal baten bitartez aurkeztuko dogu proiektua.

Ideia, gogo eta behar handiz betetako urtea daukagu aurretik.

Besarkada bat

## Kaixo mungiarra:

Tras la época navideña seguimos trabajando. Hemos aprobado los presupuestos municipales, y aquí damos cuenta de ello. Pronto veréis en nuestra web más información al respecto. Es importante saber de dónde viene el dinero, con cuánto contamos y dónde se gasta o para qué se emplea.

Hemos profundizado en nuestras líneas estratégicas, ampliando el dinero para Formación y Empleo y también para Acción Social e Igualdad y manteniendo la apuesta por los barrios. Trabajaremos con nuestras asociaciones y fortaleceremos la relación con las y los jóvenes a través de una educadora de calle. Asimismo, presentaremos, a través de un foro abierto, un proyecto para construir una zona cubierta de juegos para niñas y niños.

Tenemos por delante un año lleno de ideas, ganas y trabajo.

Un abrazo

# HAZ, Herritarrentzako Arreta Zerbitzua, martxan dago zemenditik







Udaletxeko arkupeetan dago HAZ.
*El SAC está en los arcos del Ayuntamiento.*

**Udaleko administrazino-tramitazinoak arinago eta errazago egiten dira bertan**

El abono del carnet del Polideportivo se podrá realizar en el propio centro deportivo además de en el SAC.

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak (HAZ) zemendiaren 28an zabaldu ebazan ateak. Udaleko administrazino-tramitazinoak modu arin, garden eta errazean burutu daiguzan bertan, Udaleko zerbitzuen eta mungiarron arteko hartu-emana estuagoa eginda.

Bulegoa egokitzeko obretarako 98.180€-ko aurrekontua bideratu da.

### El servicio ofrece un horario de atención ininterrumpido:

- De lunes a viernes, de 07:30 a 16:00 horas
- El jueves, el horario se amplia hasta las 20:00 horas.




Zerbitzua eten bako ordutegian eskaintzen da, astelehenetik barikura, 7:30etik 16:00etara; eta, eguenetan, ganera, 20:00etara arte.
*El servicio está disponible initerrumpidamente de lunes a viernes de 07:30 a 16:00 y los jueves hasta las 20:00 horas.*



Txanda-kudeaketarako tiket makina.
*Dispensador de tickets para gestionar los turnos.*



Mungiarrek edozein kontsulta egiteko ordenagailu bat daukie erabilgarri HAZ bulegoan.
*El SAC está provisto de un ordenador a disposición de las y los mungiarras, para que puedan realizar cualquier tipo de consulta.*

# Mungiako IGEek alkarlan hitzarmena sinatu dabe



Kirol arloko Markel Dominguez zinegotziagaz alkartu ziran beste bost IGE-ko ordezkariak akordioa sinatzeko.

**Helburua eskolatik kanpoko eskaintzak batu eta ikasle guztiek nahi dabezan kirol eta ekintzetan parte hartzea da**

Joan dan abenduaren 14an Mungiako ikastetxe guztietako Ikasleen Guraso Elkarteek (IGE) lankidetza edo alkarlan hitzarmena sinatu eben. Horren bitartez, eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza bateratu eta gestinoa erraztu egin gura dabe**. Akordio honi esker helburu nagusi bi lortuko dira:**

- Batetik, kirolari gazteak ez lotzea gura daben kirola egin barik, ezta eskolatik kanpoko bestelako ekintzaren bat egin barik bere. Horretarako, eskolaz kanpoko eskaintza bateratuagoa eta homogeneoagoa sortu nahi da ume guztiek nahi daben kirola praktikatu ahal izan daien, modalidade jakin batzuen **eskatzaileak beste zentro batzuetara joan ahal daitezala erraztuta.** Azken finean, parte-hartzea indartzen daben sistemak bilatzen saiatzea da, euren **zentroan pertsona-kopuru faltagaitik ikasleek gura daben aktibidadea egin barik ez daitezala gertau.**

**UME GUZTIEK AUKERA BERBERAK IZANGO DABEZ BAI KIROLAK EGITEKO, BAITA ESKOLAZ KANPOKO BESTE EKINTZETAN PARTE HARTZEKO BERE.**

- Bestetik, **kudeaketa aldetik gauzak erraztu egingo** dira. Hemendik aurrera**, IGE guztien izenean ordezkari bat egongo da**, urtero aldatzen joango dana. Holan, urtero alkarte desbardin bat izango da bilera-deiak egiteko eta antolatzeko arduraduna.

**Momentuz bost dira akordio hau sinatu daben Ikasleen Gurasoen Elkarteak**: AMPA Lauaxeta IES Mungia, Larramendi Ikastola, AMPA Bentades, AMPA Legarda eta AMPA Laukariz.

Etorkizunari begira, hitzarmenean sartu gura daben Mungialdeko beste IGE batzuek bere parte hartu ahal izatea aurreikusten dau akordioak.

## Acuerdo de colaboración entre AMPAs

En diciembre se firmó un acuerdo de colaboración entre las diferentes Asociaciones de Madres y Padres de Alumnos del municipio para:

- Crear una oferta extraescolar lo más unificada y homogénea posible, permitiendo que todas las niñas y niños tengan las mismas posibilidades de practicar cualquier deporte o actividad extraescolar; evitar que haya alumnas y alumnos que se queden sin practicarlo por falta de personas en su centro escolar y facilitar que puedan acudir a otros centros.
- Simplificar las gestiones. Cada año, una de las 5 asociaciones será la representante de todas y la responsable de convocar y organizar las reuniones de coordinación.

# Kirol Batzordean adostutako lehen pauso eta aldaketak



2016ko zezeilean hasi zan martxan Kirol Batzordea. Harrezkero batzorde barriak bere lehen pausoak emon eta aldaketa batzuk adostu ditu.

- *Elevator pitch:* Praktika barri honen saioak egingo dabez; hain zuzen bere, kirol alkarte eta Udalaren artean egingo dira. Bertan, alkarte bakotxak bere ekintza-planak edo proiektuak azalduko ditu eta ganerako alkarteek horretatik ikasi ahal izango dabe, danontzako esperientzia onuragarria bihurtuko da.
- *Kirol talde edo alkarteentzako diru-laguntzak emoteko irizpide aldaketa adostu:* Kirol Batzordearen eraketagaz batera, kirol alkarteentzako diru-laguntzak emoteko sistema aldatzeko beharra dagoala ikusi zan. Diru-laguntzak emoteko modelo barria, irizpide barri bat gehituta, Kirol Batzordean adostu zan, danak alkarlanean eta danen onespenagaz.

Orain arte, kirol taldeen artean diru-laguntzak banatzeko lehen irizpide biak hartzen ziran kontuan, A eta B. Orain, barriz, sistema barriagaz, C irizpidea bere sartu dabe:

- **A irizpidea:** Erakundearen ezaugarriak, kirolari eta teknikari-taldea hartzen ditu kontuan.
- **B irizpidea:** Erakundearen jarduerak hartzen ditu kontuan. Hemen taldea eragilea dan eta herriko kirol eta kultura arloko beste jarduera berezi batzuetan parte hartzen daben baloratzen da.
- C irizpidea, barria: Federazino-lizentzietako gastuak. Kontuan izango da zenbat gastatu dan lizentzia federatiboetan, bai kirolarientzat eta bai kuadru teknikoarentzat.

## Cambios acordados en la Comisión de Deporte

La Comisión Deportiva creada el pasado febrero ha dado sus primeros pasos tomando dos decisiones: por un lado, **realizará sesiones de *Elevator pitch***, una práctica que anima a las asociaciones deportivas, conjuntamente con el Ayuntamiento, a dar un discurso de presentación de un proyecto o emprendimiento. Por otro, **ha sumado un nuevo criterio** a tomar en cuenta a **la hora de repartir las ayudas económicas** entre los grupos y asociaciones deportivas. Así, con el nuevo criterio C, se tendrán en cuenta los gastos provenientes de las licencias federativas.

# Presupuestos municipales de 2017

Desde el Ayuntamiento hemos diseñado un proyecto riguroso con una cifra económica total, similar a la del ejercicio de 2016: 17.728.525,00€.

### INGRESOS

¿De dónde proceden los ingresos del Ayuntamiento?

- 6 de cada 10 euros provienen de la parte que nos toca a las y los mungiarras de la recaudación general del Territorio Histórico de Bizkaia. La Diputación recauda el IRPF, el IVA, el Impuesto de Sociedades, etc., y una parte va a los Ayuntamientos. En Mungia nos corresponden aproximadamente 595€ por habitante, si bien, la población no es el único criterio de reparto.
- 4 de cada 10 euros se recaudan a través de los impuestos y tasas municipales, que hemos congelado por un año más. Con el IBI, Impuesto de vehículos, Plusvalías, Impuesto de Actividades Económicas, y de Obras, esperamos recaudar alrededor de 275€ de media por habitante. Con el resto de tasas (basuras, precios de polideportivo, alcantarillado, servicios culturales y otros), se estiman unos ingresos de unos 170€ por persona de media.

### GASTOS

A la hora de decidir en qué se gasta, damos prioridad a mantener todos los servicios municipales en marcha y en estado óptimo, al mantenimiento del empleo público y a ahondar en las líneas estratégicas marcadas para este mandato que son:

- **PRIMERO PERSONAS**: Con el fin de favorecer nuestro bienestar, seguiremos apostando por las políticas sociales y con especial atención a las personas mayores. Aumentamos las aportaciones a la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales. Su partida asciende a 661.958€ de los cuales 74.823€ corresponden al Servicio para la Igualdad de Oportunidades.

  Por su parte, el presupuesto total del Departamento de Acción Social e Igualdad asciende a 1.013.352,47€.
- **IDENTIDAD:** Mungia siente orgullo de su identidad euskaldun y desde el Ayuntamiento seguiremos impulsando el uso del euskera, fomentándolo también entre la juventud. La partida presupuestaria para el Departamento de Euskera asciende a 678.510,10€.
- **MANTENIMIENTO Y MEJORA DEL EMPLEO:** Nuestro propósito es seguir mejorando las condiciones de empleabilidad de las personas que buscan empleo. Asimismo, seguiremos impulsando el Plan de Empleo Comarcal con el dinero que se necesite. La partida de Mungialdeko Behargintza aumenta en 45.000€ para 2017, para hacer un total de 790.550’89€.
- **COMUNICACIÓN Y TRANSPARENCIA:** El objetivo es invertir en comunicación y transparencia, acercando, también a través de procesos informáticos, el Ayuntamiento a vecinas y vecinos. Para ello se invertirán 65.000€.
- **BARRIOS:** Siempre escuchando y consensuándolo con vecinas y vecinos, se destinarán otros 125.000€ en 2017 a reforzar las infraestructuras y satisfacer las necesidades de los barrios.
- **SERVICIOS E INFRAESTRUCTURAS MUNICIPALES:** Seguiremos intentando mejorar nuestros servicios públicos e infraestructuras. Mantendremos la asignación de 2.500.000€ aproximadamente a la Limpieza Viaria y la recogida de residuos. Es mucho dinero, pero creemos que nos aporta un alto nivel de confort y merece la pena mantener el esfuerzo.

  También mejoraremos las zonas de juegos infantiles y próximamente presentaremos en un foro abierto un proyecto de zona cubierta de juegos infantiles, para el que se han reservado 300.000€ del presupuesto.

### 2017rako udal aurrekontuak

Joan dan urteko zifra ekonomiko antzekoari eutsiko deutsagu, eta horregaz Udalak aurrekontuen proiektu zorrotz eta zehatza diseinatu dau. Aurtengo aurrekontuaren oinarriak honeek izango dira: gizarte-ongizate eta gizarte zerbitzuei eustea, euskaldun nortasuna sendotzea, enplegua sustatzea eta hobetzea, komunikazioan eta gardentasunean aurrera egitea, auzoei erantzun hobea emotea eta Udaleko zerbitzu eta azpiegiturak hobetzea.

# Ondasun higiezinen eta trakzio mekanikoko ibilgailuen ganeko zerga (OHZ)

Hiri-ondasunetan ezarri beharreko Ondasun Higiezinen ganeko Zergako **karga-tasea %0,1915ekoa izango da.**

Dana dala, **hiri-erabilerengaitiko karga-tasa bereizi honeek** ezarriko dira:

- Industria-erabilerarako, %0,3145eko karga-tasea.
- Merkataritza-erabilerarako, %0,2770eko karga-tasea.
- Ganerako erabileretarako, bizitegi-erabilerarako eta beste erabilera batzuetarako izan ezik, %0,1630eko karga-tasea.

**ERA BEREAN, %0,3145EKO TASA BEREIZIA EZARRIKO JAKE BIZITEGI-ERABILERAKO ONDASUN HIGIEZINEI, 400.000€KO KATASTROKO BALIOA GAINDITZEN BADABE.**

**Landa-ondasunetan** ezarri beharreko karga-tasea **%0,0503koa** da.

**Trakzino mekanikoko ibilgailuen ganeko zergea**

Hobariak: Ibilgailu elektrikoek eta propultsio-motor hibridoa daukienek %75eko hobaria izango dabe.

Hobaria lortu ahal izateko, interesdunek eskabidea eta ibilgailuaren azterketa teknikoko txartela aurkeztu beharko dabez. Eskabidea aurkeztu eta hurrengo ekitalditik gora sartuko da indarrean hobari hori eta gehienez bere 4 urterako emongo da.

## Bonificaciones y exenciones sobre los impuestos y tasas de:

- **Bienes e inmuebles: El tipo de gravamen aplicable a los bienes de naturaleza urbana es del 0,1915%.**

- Se establecen diferentes gravámenes: Industria 0,3145%; Comercio 0,2770% y el resto de usos (excepto Residencial y otros) un 0,1630%.

- Cuando el valor catastral es superior a 400.000€ se aplica el %0,3145.

- **Vehículos de tracción mecánica**: Se establece una bonificación del 75% para los vehículos eléctricos y los de motor híbrido de propulsión.

# FACe, factura electrónica

El nuevo Servicio de facturación electrónica del Ayuntamiento se pone a disposición de las y los proveedores que entreguen bienes o presten servicios para que presenten facturas electrónicas y consulten el estado de las mismas.




Para más información, consulta en la web municipal, en el siguiente enlace: http://www.mungia.org/es/faktura-elektronikoa

# Cuidando Mungia entre todas y todos

**Campaña de civismo y convivencia**

Desde el pasado diciembre Mungia realiza una campaña de sensibilización con el fin de promover conductas cívicas que ayuden a mejorar la convivencia y proteger el patrimonio urbano y natural y los bienes públicos.

**LOS COMPORTAMIENTOS INCÍVICOS DE UNA MINORÍA CONLLEVAN A REALIZAR UN GASTO EN LABORES DE LIMPIEZA Y MANTENIMIENTO QUE PODRÍAN TENER OTRO USO.**

Entre las acciones que se están llevando destacan:

- Los **talleres de sensibilización** donde el alumnado de 2º de ESO de Bentades Ikastetxea e IES Mungia y 3º de ESO de Larramendi Ikastola recibieron recomendaciones para una mejor convivencia y donde crearon **un slogan y un logotipo** para englobar este tipo de iniciativas.
- Asimismo, se han colocado **etiquetas en elementos del equipamiento público**, como papeleras y fuentes, donde se indica su precio y cuánto cuesta a las arcas municipales solucionar los problemas ocasionados por un mal uso o un uso indebido.
- Paralelamente, se ha elaborado **una publicación** que recoge una serie de buenas prácticas cívicas que sirvan para mejorar la convivencia en nuestro municipio. Dichas recomendaciones tratan sobre temas tan básicos y fundamentales como:
  - Respeto hacia otras personas.
  - Tolerancia a la diversidad en su sentido más amplio.
  - Promoción de conductas que eviten molestar a nuestras vecinas y vecinos.
  - Fórmulas para circular por nuestras calles, aceras y carreteras de forma segura y adecuada.
  - Formas de tratar, cuidar y conducir a los animales de compañía de forma responsable y respetuosa.
  - Gestión adecuada de los residuos.
  - Cuidado de los espacios públicos y del mobiliario urbano.

Usuarias y usuarios de las lonjas han recibido un flyer para concienciarles sobre la necesidad de hacer un uso seguro y responsable de los locales, así como de mantener una correcta convivencia con vecinas y vecinos.




## Mungia danon artean jagon.

Joan dan abendutik hasita gizabidezko jokaera egokiak bultzatzeko sentsibilizazino kanpaina baten murgildurik dago gure herria. Izan bere, gitxiengo batek eraginda, gizalegearen kontrakoak diran portaera desegokien erruz garbiketa eta mantentze-gastu handiak sortzen dira.

Kanpainaren helburua bizikidetasuna hobetzea eta herriko ondare publiko eta naturala babestea da. Horren barruko ekintzen artean, besteak beste, ondokoa dagoz: ekimen hau bultzatzeko hainbat ikaslek sortutako slogan eta logoa, herriko gazteentzako tailerrak, praktika zibiko onak batzen dituen argitalpena eta ekipamendu publikoko elementuen balioa agertzen daben etiketak.

# Gazteengandik paraje

**Kaleko hezitzaile bat kontratatu da**

Udalak kale hezitzaile bat kontratatu dau 6 hilabeterako. Hezitzaile horrek kale lana egingo dau, hain zuzen bere, herriko gazteen beharrizanak eta nahiak aztertzeko eta horren diagnostikoa eguneratzeko. Eskari eta beharrizanen datuak jasoteko orduan, lonjetako erabiltzaileei aparteko eran erreparatuko deutse, zuzenean izateko euren eretxien barri; eta gero, hori erabilita, jarduera plan bat diseinatuko da, eurek egindako proposamenei erantzungo deutsena, ahal dan neurrian.

Horren ganera, lonjen egoerea erregularizatzeko lana egin barik badaukie, lagundu egingo jake lonjetan dabilzan kuadrilei horretarako egin beharreko tramiteak egin daiezan, lonjen ganeko Udal Ordenantzari jarraituta. Era berean, lan egingo da gazte horreekaz sortu leitekezan alkarbizitza arazoak gertatu ez daitezan.





## Cerca de la gente joven

**Se ha contratado a una educadora de calle**

El Ayuntamiento ha contratado a una educadora de calle durante 6 meses. Su función es la de hacer un trabajo en la calle para actualizar el diagnóstico de las necesidades y aspiraciones de nuestra juventud. Hará especial hincapié en las personas jóvenes usuarias de las lonjas, con el fin de recoger sus demandas y necesidades de primera mano para, en una fase posterior, diseñar un plan de actuación que, en la medida de lo posible, dé respuesta a dichas propuestas.

Además, se procurará ayudar a las distintas cuadrillas usuarias de lonjas a que realicen, si no lo han hecho ya, los trámites oportunos para regularizar su situación según lo que se establece en la Ordenanza Municipal reguladora de las lonjas juveniles. Igualmente tratará de trabajar con ellas y ellos para intentar evitar los posibles problemas de convivencia que puedan darse.

# Atendiendo a las personas mayores y a las personas con movilidad reducida

El Área de Acción Social e Igualdad del Ayuntamiento llevó a cabo en octubre un proyecto dirigido tanto a las personas mayores de 80 años que viven solas como a vecinas y vecinos con movilidad reducida. Así, se visitaron sus domicilios para efectuar actuaciones técnicas y sociales:

| Actuaciones técnicas | Actuaciones sociales |
|---|---|
| Se realizó una inspección preventiva con el fin de detectar los riesgos potenciales (caldera, instalación eléctrica, estufas...) que pudieran darse en los domicilios y se elaboró un plan de evacuación específico. | Un trabajador y una trabajadora social realizaron una entrevista para recoger información acerca de la situación social de este colectivo (vivienda, relaciones sociales, vida diaria, situación sanitaria, autonomía, etc.). |
| Se instalaron detectores de incendios en los domicilios para reducir los tiempos de reacción y lograr una rápida evacuación. El coste, instalación y mantenimiento anual de estos equipos corre a cargo del Ayuntamiento. | Igualmente recogieron sus necesidades y les proporcionaron información sobre los servicios y prestaciones existentes para este fin en nuestro municipio. |
| Se entregaron manuales con nociones básicas de prevención y seguridad. | |

## Gure edadekoak eta mugikortasun urriko pertsonak jagoten

Gizarte Ekintza eta Bardintasun Arloak 80 urtetik gorako edadekoak edota mugikortasun urrikoak diran pertsonentzako proiektua burutu eban urrian. Euren etxean bisita egin eta hobetzeko ekimenak bideratu ziran. Besteak beste, honeek:

- Bizilekuan gertatu leitekezan arriskuak zeintzuk diran ikusteko prebentzino inspekzinoak egin ziran, baita ebakuazino-plan zehatzak bere.
- Ke-detektagailuak jarri ziran etxeetan erantzuteko denborak laburtzeko eta ebakuazinoak arin egitea lortzeko. Horren kostua, instalazinoa eta urteroko mantenimendua udaletxearen kontura doa.
- Gizarte Zerbitzuetako langileek alkarrizketak egin ebezan pertsona horreen egoera sozialaren ganeko datuak izateko eta, euren beharrizanen arabera, udalerrian horretarako dagozan zerbitzu eta prestazinoei buruzko informazinoa emoteko.
- Prebentzino eta segurtasunaren ganean jakin beharreko oinarrizko informazinoak batzen dabezan eskuliburuak bere banandu ziran.

## Mungialdea apoyando el Día Mundial de la persona cuidadora



Ponentes de Gorabide durante la intervención.

La Mancomunidad celebró el 3 de noviembre la II Conferencia sobre el *Día Mundial de la persona cuidadora*, bajo el título *El fomento de la autonomía en personas con discapacidad intelectual*. Tres personas con discapacidad intelectual de Gorabide, así como una cuidadora de Gorabide Mungia, compartieron con el público sus experiencias personales.

## Informando y educando en la lucha contra el sida



Los puestos a pie de calle facilitan a la ciudadanía el acceso a la información.

El 1 de diciembre se celebró el *Día Mundial de Lucha contra el SIDA*. Con tal motivo, el Servicio de Prevención de Adicciones de la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales realizó talleres para el alumnado y se ubicaron puntos de información y sensibilización.

# Gran acogida de la fiesta Senegalesa

**Gran acogida de la fiesta Senegalesa**

En octubre tuvo lugar una fiesta organizada por la comunidad senegalesa de nuestro municipio. La Asociación Sen Mungia, con la colaboración del Departamento de Acción Social e Igualdad del Ayuntamiento y de varias asociaciones mungiarras, desarrolló diferentes actividades.

La fiesta constituyó una oportunidad única para propiciar un acercamiento a la cultura senegalesa y para naturalizar la gran diversidad cultural existente en el municipio.

La fiesta constituyó una oportunidad única para propiciar un acercamiento a la cultura senegalesa y para naturalizar la gran diversidad cultural existente en el municipio.





Los juegos y talleres infantiles dieron paso a un acto de carácter más institucional en el que tomaron parte diversas personalidades.





Asimismo se celebró una comida popular a la que asistieron más de 200 personas. En ella se pudieron degustar platos y bebidas típicas del país africano así como disfrutar del espectáculo de danza y música del grupo Ndiouke Bande.

# Iluminando Mungia



La asociación CIMUNGIA y la comunidad Colombiana celebraron el pasado 7 de diciembre la *XI Fiesta de las velas y los faroles* en homenaje a la Virgen de la Inmaculada Concepción.

En la fiesta, realizada con la colaboración del Ayuntamiento, hubo actividades y juegos infantiles. Después, se procedió al encendido y exhibición de velas y faroles realizados artesanalmente. Como colofón se disfrutó una exhibición de danzas de Colombia, Ecuador y Bolivia, así como una chocolatada popular.

# Auzoen bide eta sarbideak hobetzen

## Zumetzaga bideko obrak

Gure auzoek eta bertako bizilagunek Mungiaren parte garrantzitsua dira. Horregaitik, Udalak ahalegin berezia egiten dau auzoak behar dan moduan mantentzeko, bertako bizilagunen ongizatea eta alkarbizitza hobetzeko ahalegina eginda.

Auzoek daukiezan beharrizanei erantzuteko egin diran beharren artean, besteak beste, Zumetzagarako bideren parte baten egindako hormigoizko-lanak aitatu behar dira. 30.000 euroko aurrekontua izan dauen lan honi esker bai bertako bizilagunek eta baita Zumetzagako ermitara doazenek hobekuntza handia igarriko dabe sarbidean.



Zumetzagako Bidean burututako lanek erraztu egingo deutse bidea inguru horretan bizi diranei eta ermitara igo gura dabenei.



Las obras llevadas a cabo en Zumetzaga Bidea favorecen la accesibilidad de quienes viven en la zona y de quienes que desean subir a la ermita.

## Obras en el camino a Zumetzaga

**Seguimos trabajando en la mejora de la accesibilidad de nuestros barrios**

Desde el Ayuntamiento seguimos haciendo especial hincapié en mejorar y reforzar las infraestructuras de nuestros barrios para potenciar el bienestar y la convivencia de las vecinas y vecinos que viven allí.

Entre otros, se han acometido obras de hormigonado de una parte de Zumetzaga Bidea. Gracias a este trabajo, que ha contado con un presupuesto de 30.000 euros, las personas que viven en la zona y quienes se acerquen a la ermita de San Miguel de Zumetzaga notarán una gran mejora en la accesibilidad.

## Desbroce de bordes de caminos y alumbrado

En enero se llevarán a cabo los trabajos de desbroce de bordes de caminos y arcenes en Atxuri, Billela y Larrauri con el objetivo de seguir manteniendo y garantizando la seguridad vial de los vehículos, así como de facilitar el paso público peatonal. Estos trabajos cuentan con un presupuesto de 5.000€. Asimismo, vecinas y vecinos de Billela y Trobika disfrutarán de una nueva ampliación de red de alumbrado público, con una extensión de 250 metros, lo que posibilitará una mejora en la visibilidad nocturna de algunas zonas rurales. Para ello se destinarán 15.000€.

# Herritarrengaitik herrira

**Deiaren IX. Hemendik Sariak Mungiako Babes Zibileko taldea saritu dau**

Mungialdea eraikitzen laguntzen daben hainbat pertsona eta talde izan ziran sarituak joan dan urriaren 27an ospatu ziran **Deiaren IX. Hemendik Sarietan**.

Hamabost sarituen artean, **Mungiako Babes Zibileko bolondres taldeari emon eutson Mungiako Udalak garaikurra**. Taldea osotzen daben 30 eta 66 urte bitarteko hogei herritarrek lan itzela egiten dabe gure herriagaitik.

Mungiako Babes Zibila, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemagaz, Mungiako Udalagaz eta Udaltzaingoagaz alkarlanean dabil; ezinbestekoa bihurtu da larrialdi egoeretan eta jende asko batzen daben lanetan. Eskaintzen dabezan lan orduak, laguntza eta kolaborazinoa eskertzeko, hona hemen saria.



Mungiako Babes Zibileko kideek Ager Izagirre alkatearen eskutik jaso eben saria.

Sarituen artean bere, Mungia Saskibaloi Taldea, Koopera eta Maria José López Mungiako anbulatorioko pediatra egon ziran.

En la IX edición de Deia Hemendik Sariak se reconoció la labor del voluntariado del grupo de Protección Civil de Mungia. También recibieron el premio Mungia Saskibaloi Taldea, Koopera y María José López, pediatra del ambulatorio de Mungia.

# Ume guztiak ilusinoz beteten Gabonetan




Tailer, puzgarri eta mota askotako jolasak osotu eben Gabonetako Parkea.

Barriro bere, Mungiako Udal frontoia umeentzako jai giro paregabeaz bete zan Gabonetako Parkeagaz. Bertan, ludoteka, puzgarri, mota desbardinetako tailerrak eta jolas ugari eskaini jaken umeei doan.

Familiagaz edota lagunakaz denbora ondo pasetako aukera ezin hobea emon eban jolas-parkeak eta, hori dala eta, partehartze handia izan eban.

El Parque Navideño infantil gratuito volvió a llenar de ilusión a las y los más pequeños con sus hinchables, talleres, ludoteca y variados juegos.

# Merkataritzan Euskeraz

Mungiako merkataritza gogotsu dabil azken urteotan "hemen euskeraz" egiten dala aldarrikatzen. Izan bere, bezeroei zerbitzua euskeraz eskaini ahal izatea, gure nortasunaren ezaugarri nagusienari eusteko moduaz ganera, merkataritzak daukan kalidadearen marka bere bada.

**UDALAGAZ BATERA EGINDAKO ALKARLAN HORREN BARRUAN SARTZEN DIRA ONDOKOAK:**

- **2014an abian jarri zan "Hemen euskeraz" kalidade-marka lortzeko kanpaina, aurten barriro** (urte birik behin ateraten da deialdia) **atera dana**. Oraingo edizinoan 10 lokalek emon dabe izena, eta 2014koakaz batzen badoguz, **guztira 43 lokal** daukaguz herrian kanpaina honetan parte hartzen dabenak. Datorren urtean danei egingo jake jarraipena eta 2018an barruan aterako da beste deialdi bat. Bien bitartean, euren beharrizanetara egokitutako eskaintzatxu bat prestatuko da: ikastaro labur bat, aholkularitza berezia… Beheko taulan daukazuez aurtengoak eta 2014koak.

Merkataritzan egindako kanpaina horreen bidez, akabuko urteotan lan-ildo interesgarria jorratu da, dana ondo bidean joanda, sano emonkorra izatea espero doguna.

- **Merkatarientzako euskerako eskolak** (talde berezia) **sortzeko ahalegina** egin da. Zoritxarrez, zazpi merkatarik baino ez dabenez emon izena eta, euren ezagupen-mailak sano ezbardinak izan diranez, ezin izan da talderik sortu. Halanda bere, interesa erakutsi daben horreei beste aukera batzuen barri emongo jake: ohiko ikastaro eta diru-laguntzen barri eta sarean dagozan baliabideen barri. Datorren ikasturtean atzera bere beste ekinaldi bat egingo da taldea sortzeko.

- Urteroko eskaintzari eutsi egin jako, hau da, herriko **merkataritzako lokal guztien esku ondoko doako zerbitzuak jarri dira:** itzulpenak, karteleria (itxita/zabalik, ordutegia, merkealdia…) eta hizkuntza aholkularitza.




| SALTOKIAREN IZENA | URTEA | SALTOKIAREN IZENA | URTEA |
|---|---|---|---|
| SARRIA | 2016 | EXPERT TROBIKA | 2014 |
| KATTALIN BITXIAK | 2016 | PLISTI PLAUST | 2014 |
| RAFA HARATEGIA | 2016 | OLGA MODAK | 2014 |
| HAIZE LIBURUDENDA | 2016 | GUDAN FRUTA-DENDA | 2014 |
| ZUBIAGA ILEAPAINDEGIA | 2016 | ZIRATS ESTILISTAS | 2014 |
| LIRAIN ILEAPAINDEGIA | 2016 | ARTZA KIROL MODA | 2014 |
| MAFRE ASEGURU-ETXEA | 2016 | EKHI-EDER | 2014 |
| SEGUROS BILBAO | 2016 | IBINARRIAGA | 2014 |
| ARGI ARGAZKIDENDA | 2016 | LEKUNE DEKORAZIOA | 2014 |
| URRUTIA EDARIAK | 2016 | ITURBURU INMOBILIARIA | 2014 |
| AGUSTIN AUTOESKOLA | 2014 | IRASTORZA | 2014 |
| ITZE | 2014 | GOLZARRI FARMAZIA | 2014 |
| SEÑEAK | 2014 | URRUTIA JOLAS KIROLAK | 2014 |
| ELIOT SCHOOL | 2014 | BIOLETA MUNDUAN | 2014 |
| PERU LIBURU-DENDA | 2014 | RYELMA | 2014 |
| LEGARRETA HARATEGIA | 2014 | AUTO INDUSTRIAL VASCONIA | 2014 |
| NEURKETA ELEKTRONIKA | 2014 | ABOKATUAK AHOLKULARIAK | 2014 |
| ESTANKOA | 2014 | IÑAKI JOSTUNDEGIA | 2014 |
| MAKAILO ARRAINTZAR | 2014 | IMPERMUNGI | 2014 |
| IRIS MODA | 2014 | BARDEAK | 2014 |
| GENERAL OPTICA | 2014 | AURTENETXE | 2014 |
| URRUTIA JOLAS KIROLAK | 2014 | RAIMUNDA OGITEGIA | 2014 |

Con el fin de mejorar el servicio de los comercios de Mungia en euskera, el Ayuntamiento ha impulsado campañas para lograr la marca de calidad "Hemen euskeraz", ha propuesto llevar a cabo clases de euskera para comerciantas y comerciantes y ha puesto diversos servicios gratuitos a su disposición.

# Mungian bere *Berbalagun*




Desde enero hasta junio estará en marcha la iniciativa *Berbalagun* que consistirá en un espacio para hablar en euskera y participar en actividades complementarias.

2004an sortu zan "Berba-txokoa" proiektua Mungian. Ekimen horren helburua zera zan: euskeraz berba egiteko aukera askorik ez daukienei (euskaldun barri eta zahar) horretarako aukera bat eskaintzea.

Harrezkero, euskera alkartearen laguntzagaz, **Berba-txokoak hamabi urteko ibilbidea egin dau,** batzuetan indartsuago eta beste batzuetan ahulago. Halanda bere, azken urteotako uzta nahiko eskasa zala ikusita, helburu beretsuak dituan *Berbalagun* proiektuagaz bat egiteko modurik ete dagoan aztertzen ibili da Euskeraren Aholku Batzarra. Izan bere, Berbalagun dinamika Euskal Herriko eskualde askotan sano errotutako egitasmoa da eta emaitza politak izan dituana. Beraz, gaia ondo aztertu ostean, 2017ko **urtarriletik bagilera bitartean Berbalagun ekimen berezia abian jartea erabagi da**.

*Berbalagun* proiektuan izena emoten dabenek astean zehar ordu beteko saio bat izango dabe, euren artean modu librean berba egiteko, eta gero ekintza osagarrietan hartuko dabe parte. Ekintza osagarri horreek taldekideen interesen arabera aukeratuko dira (mendi urteerak, sukaldaritza saioren bat…), eta ahal dan guztietan, herriko alkarteakaz lankidetzan antolatuko dira, aurtengo ekimen honen helburua bikotxa dalako: batetik, euskeraz berba egiteko aukerarik ez daukanari aukera hori eskaintzea, eta bestetik, egitasmo hau herriko euskaldunak aktibatzeko bide bihurtzea.

Izena emoteko epea zemendian zabaldu zan arren, parte hartzeko interesa daukien guztiek edozein momentutan apuntatu ahal izango dira (ganera ekintza osagarriak irekiak izango dira): kinttopeko@aek.eus, 607 601 302.

# 2016ko Euskeraren Nazioarteko Eguna



Sariak jasotea pozgarria da, bai, baina sariak banatzea beharrezkoa, herritarrek egindako lanari merezitako errekonozimendua emotea da eta.




Olerkigintzak leku berezi eta kuttuna dauka euskalgintzaren barruan, gure hizkuntzaren arima eta arnasa ondoen irudikatzen dituan generoa dalako.
Ager Izagirre, Gotzon Plaza (1. Saria), Antonio Casado (2. Saria) eta Alaitz Erkoreka.




Eskerrik Asko Mungia Errugbi Eskolari, azken berrogei urteotan hainbeste umeri eta gazteri kirola euskeraz gozatzeko aukera emoteagaitik!!!

El Euskera Saria de este año ha ido a parar a las manos de Mungia Errugbi Eskola por dar la oportunidad de disfrutar de este deporte en euskera durante 40 años. Asimismo, Gotzon Plaza se llevó el primer premio en el concurso de poesía.

# Herriko gazteek eurentzako ekintza eta aktibidade ugari daukie gozatzeko Gaztegunean





**Beste batzuen artean, disko-festak, tailerrak, erakusketak eta jolasak**

Urte osoan zehar nerabeei zuzendutako makina bat aktibitate egin dira Gaztegunean; horreen artean, skate eta kirol bideoak proiektatu, billar, futbolin eta ping-pong txapelketak prestatu, *emakumeak historian* erakusketa zabaldu, *beldur bari*k laburmetraiak emon, *zine eta krispeta* egunak eta *gau baltza* antolatu eta ospatu dira.

Egindako ekintzen artean **musika-bideoklipen proiekzinoa** nabarmendu da asko. Jarduera honek 170 gazte inguru batu ebazan martian, eta egin dan beste hileetan bere arrakasta handia izan dau. Honegaz batera, **disko-festek bere gazte ugari batzen dabez**, irailean kasurako, 100 gaztetik gora. **Asau Barik txapelketaren sari banaketak** harrera paregabea izan eban apirilean eta 150 nerabe alkartu zituan. Bagilean egindako ***slakline* erakusketa** bere gazteen gustokoenen artean agertzen da, 200 gazteren bisitaldia hartzea lortu eban eta.

**Hainbat izan dira gazteentzat egin diran tailerrak.** Horreen bitartez hainbat gauza barri ikasi ahal izan dabe gure herriko gazteek: irabiatuak egiten, henna lantzen, kamisetak kustomizatzen, bizikletak konpontzen, edari izoztuak prestatzen, nazioarteko janariak ezagutzen eta alkoholik gabeko koktelak egiten.

Durante todo el año, el espacio del Gaztegune ofrece variadas actividades, exposiciones y juegos para las y los jóvenes mungiarras, entre otras, las proyecciones de videoclips musicales y las disco-fiestas son unas de las actividades más exitosas. Igualmente, la exposición de slakline y el reparto de premios del campeonato 'Asau Barik' han contado con una gran asistencia por parte de la juventud.



# Eszenatokia beteten MungiRock aretoan

## 30 talde inguruk jo dabe 2016an

Urte osoan zehar, MungiRock espazioak estilo ezbardineko musikaz gozatzeko aukera emon dau. Ekitaldiak areto honetara ekarteko, azpimarratzekoa da **Azken Zarata Mungia Rock Elkarteak**, Mungiako Udalagaz alkarlanean, **egiten dauen beharra**.

**Musikazale alkarteak aretoaren kudeaketa osoa egiten dau**. Besteak beste, egutegia antolatu, taldeak ekarri, taldeakaz batzartu eta lokalaren ateak zabaldu eta itxi.

**2016an** bertako, nazioarteko eta kanpoko taldeez osatutako **12 kontzertu antolatu ebazan**. *Guda dantza, F.I.TA, Dekot, Cordura, Tortharry, Ferosz, Deathsurrection, DarkHellion, DevilVow, Olympians, Dags, Leun, TheBlackWizard, Vircator, IanManson, Dientes de luna, Nevada, Criminalmind, No Komply, Ways, Mi pequeña venganza, OuterHeaven, MosGenerator, WickedWizard, Monsternaut* eta *Song of Anhubis* taldeek zapaldu eben Mungiako eszenatokia.



Kontzertuak egiteko eszenatokia eta beharrezko materialak dagoz MungiRock Aretoan.

En 2016 la sala MungiRock ha visto pasar alrededor de 30 grupos por su escenario. Para ello, y en colaboración con el Ayuntamiento, **Azken Zarata Mungia Rock** Elkartea trabaja duro gestionando las actividades del local.

# Urte bi musikari gogor emonez!

## MungiRock aretoak bere bigarren urteurrena ospatzen dau

Musika indartzeko eta zabaltzeko helburua daukan espazio honek urte bi daroaz ateak zabalik. Urteurrena ospatzeko, Azken Zarata Mungia Rock Elkarteak **kontzertu berezi bat** antolatu dau aretoan bertan. Kontzertu hori **urtarrilaren 13an, barikuan, egingo da, gaueko 21:00etatik 00:00etara.**

Para celebrar el segundo aniversario de MungiRock los grupos *ERASO!* y ERO tocarán un concierto gratuito el 13 de enero a las 21:00 horas.

### KONTZERTUAREN SARRERA DOAKOA DA

Egun horretan Zarautzeko *ERASO!* taldeak eta Bilboko *ERO* taldeak joko dabe. ERASO! taldeak 20 urte beteten dauz oholtza ganean. Laukote gipuzkoarrak disko barria atera eban 2016an, euren ibilbide eta bilakaerea erakutsiz. Rock heldua eta landua egin dabe azken aldian eta euren zuzenekoak ez dau hutsik egingo.

ERO izango da MungiRock-i bizia emongo deutson beste musika taldea. Euskeraz egindako rock indartsu hau aldez aurretik entzun daiteke, *erotuta.blogspot.com* helbidean doan deskargatuta.



*ERASO!* taldeak 20 urteko ibilbide musikala dauka.

# 2017ko egutegiak mungiarra sentitzea zer dan erakusten dau

## El calendario del 2017 saca a relucir el orgullo de ser mungiarra

Aprovechando que las y los mungiarras somos gente creativa y dinámica, desde el Ayuntamiento volvimos a organizar un concurso fotográfico para crear el calendario de este año.

De esta manera, el pasado octubre fueron 25 las personas que se apuntaron a esta iniciativa a la que presentaron 96 imágenes bajo el tema de aquello que nos hace sentir orgullo de nuestro pueblo. Tras una primera selección realizada por un jurado, 41 fotografías fueron expuestas en Torrebillela para que las y los mungiarras pudiésemos decidir, a través de nuestros votos, las trece fotografías que ahora ilustran el calendario.

Desde el Ayuntamiento deseamos agradecer la alta participación del pueblo, tanto presentando sus imágenes, como votando por ellas.



Felix Urrutiak, '*Gabonak*' argazkiaren egileak, alkatearen eskutik jaso eban lehenengo saria, hau da, 300€-ko txekea.

## 96 argazki aurkeztu ziran MungiHarro egutegia sortzeko

Gure herriko aurtengo egutegia osatzeko, barriro ere argazki-lehiaketa bat prestatu genduan urrian. Izan bere, mungiarrak parte-hartzaile aktibo eta dinamikoak dira, eta energia hori ahal dan guztietan atera gura dogu.

Udaletxean, mungiarra izatea zer dan, zerk sentidu eragiten deuskun harro eta Mungiak berak ze esangura daukan planteatu genduan argazki-txapelketaren gairako. Horri erantzuteko, 25 argazkilari aurkeztu ziran euren lanakaz, 96 lan. Maila bikaina egon zan eta sano izan zan gatxa epaimahaiarentzat 41 argazkiren aukeraketa egitea.

**EGUTEGIAK MUNGIARROI HARRO EGOTEKO MOTIBOA EMOTEN DEUSKUEN LEKU, TRADIZINO, IKUR, EGOERA ETA ABARREN IRUDIAK JASOTEN DITU.**

Lehen aukeraketa egin ondoren, argazki horreen erakusketa egin zan Torrebillelan eta mungiarrek euren gustokoenei emon eutsien botoa. Boto-kopuru handiena lortu eben hamahiru argazkiak ilustratu dabe egutegia, irudirik bozkatuena egutegiaren aurrealdean jarri da eta gainontzeko hamabiek urtarriletik abendurako tartea betaten dabe.

**HERRITARREN PARTE-HARTZEA, BAI ARGAZKIAK EGITEN ETA BAI BOTOA EMOTEN, EZINBESTEKOA IZAN DA EGUTEGIA OSATZEKO.**

Mungiarren talentua erakusteaz ganera, egutegia herritar guztion artean hautatzea izan da lehiaketaren helburua. Horrelako ekimenak prestatzean herritarren dinamizazinoa sustatu gura da, eta mungiarrok ezin hobeto erantzuten dozue. Horregaitik, Udaletik eskerrak emon nahi doguz zuen parte-hartzeagatik. Argazkilarien maila eta mungiarron harrerea paregabea izan da.

# Osatu da aurtengo San Pedro Jaietako Batzordea





**Herriko 11 alkartek hartzen dabe parte**

2017ko San Pedroetarako Jai Batzorde barria badago eratuta. Bertan, Udaleko zinegotzi eta teknikarien ganera, herriko alkarte desbardinetatik urtero aukeratzen diran hamaika ordezkari dagoz.

Udaleko ordezkariok gure eskerrik onena erakutsi gura deutsagu Jai Batzordeari; seguru dakigu aurten bere euren lanari esker, jaietako programazinoa mungiar guztiok disfrutatzeko eta parte hartzeko diseinatuta egongo dala.

**Honek dira arlo bakotxetik parte hartu daben alkarteak:**

**Kultura:**
Amilotx Dantza Taldea eta Jose Mari Arregi Abesbatza.
**Kirola:**
Andui Mendigoizale Taldea, Mungia Igeriketa Taldea eta Mungia Rugby Taldea.
**Gazteria:**
Txispeleta Eskaut Taldea eta Azken Zarata Mungia Rock Alkartea.
**Jubilatuak:**
Danontzat Jubilatuen eta Pentsinodunen Alkartea.
**Gurasoak:**
Laukarizko Eskola.
Merkataritza: Mungiako Merkatari eta Ostalarien Alkartea.
**Txosnak:**
Ingule Gazte Asanblada.

## Creada la Jaietako Batzordea de San Pedro

**En ella participan 11 asociaciones de Mungia**

Ha sido constituida la Jai Batzordea de San Pedro para este nuevo año. En dicha comisión, además de concejalas y concejales y personal técnico del Ayuntamiento, toman parte las y los representantes de las once asociaciones de nuestro pueblo escogidas para este 2017.

Desde el Ayuntamiento, nuestro más sincero agradecimiento a la Jai Batzordea, tenemos el convencimiento de que, este nuevo año, gracias a su trabajo, la programación de fiestas volverá a estar diseñada para el disfrute y participación de todas y todos los mungiarras.



# Campaña de concienciación para la recogida de excrementos

En el anterior Mungiarra se comunicó el problema que genera el no recoger los excrementos de las mascotas. Viendo que el problema persiste, desde el Ayuntamiento damos un paso más en la obligación de cumplir la ***Ordenanza municipal de Tenencia y Protección de Animales.***

El personal de jardinería de Lantegi Batuak y CESPA, encargada de la limpieza viaria, **NO está para la limpieza de excrementos.**


A diferencia de la creencia popular, las heces de perro no son un fertilizante, sino que son tan tóxicas como la basura humana.

- A partir del 1 de febrero se habilitará un buzón físico en el Servicio de Atención Ciudadana y un correo electrónico, **txakurrakmungia@gmail.com,** hasta el día 31 de marzo. En él cualquier vecina o vecino podrá aportar ideas para facilitar, concienciar y ayudar a las personas que tienen perros tanto en la recogida de los excrementos como en otros temas.
- A partir del día 1 de febrero se realizará una campaña de vigilancia junto con la Policía Municipal, quien tiene autoridad para multar a quienes no cumplan con las obligaciones de:
  - Tener a sus perros correctamente registrados y con identificación censal.
  - Llevar a los perros atados y además con bozal en los casos que sea obligatorio según la ordenanza.
  - Recoger las heces de las mascotas.

Más información sobre la responsabilidad de quienes poseen mascotas en **www.mungia.org**:
- Apartado **Mungia Garbi**
- La **Ordenanza Municipal** sobre Tenencia y Protección de Animales
- Apartado **Manual de Trámites Municipales**: fichas 5.22 y 5.23, obligaciones perros potencialmente peligrosos.

**Las cacas en matemáticas:**

**500 perros casco urbano x 0,25 $\frac{\text{(Kg heces)}}{\text{(perro y día)}}$ =125 (Kg heces)/día**

## Kaka-korotzen batzeko kontzientziazino kanpaina

Maskoten korotzak batu ez egiteak dakarren arazoak aurrera egin dau eta, horregatik, Udaletxeak Animaliak Eduki eta Babesteari buruzko Udal Ordenantza zorrotzago beteko dau.

- Zezeilaren 1etik aurrera, Herritarren Arreta Zerbitzu barrian gutunontzi fisiko bat eta interneten **txakurrakmungia@gmail.com** posta jarriko dira, martxoaren 31ra arte. Bertan mungiarrek txakurrak dituzten jabeei zuzendutako ideiak emon ahal izango dabez gauzak errazteko asmoz, bai txakurren kaka-korotzen bilketaren konturako eta bai beste gai batzuetarako bere.
- Zezeilaren 1etik aurrera bigilantzia kanpainia bat egingo da Udaltzaingoagaz batera. Txakurra ondo erregistratu barik egoteagaitik edota errolda-identifikazioan ez egoteagaitik isunak jarri ahal izango dabez; gauza bera gertatuko da beharrezkoa dan kasuetan txakurra loturik eta muturrekoagaz ez eramatearren edota kaka-korotzak ez batzearren.

# Recogida de enseres y voluminosos

## Bolumen handiko altzari eta tresnak batzea

Oindino bere ere asko dira bolumen handiko altzariak eta tresnak kontainer ondoan bertan behera ixten dabezanak.

Altzari eta tresnak bota gura izan ezkero, Mungian badaukagu debaldeko zerbitzu bat horretarako, astelehen, eguazten eta barikuetan funtzionatzen dauena. Deitu egin behar da aurretik 94 435 57 50 telefonora, eta ordu bat adostu; holan eginda, adostu dogun leku eta orduan itxi ahal izango doguz bota gura doguzan gauzak.

Honen ganeko kontzientzia hartzeko, Udalak pegatinak jarriko deutsez aldez aurretik abisatu barik kalean ixten diran tresnei; baita beste pegatina batzuk bere, batzeko bilketa-prozedura eta horretako dagoan telefono zenbakia gogorarazoteko.


ABISUAK - AVISOS

BETI AURRETIK DEITUTA

944 355 750

SIEMPRE PREVIA LLAMADA

ETXEETAKO ELEKTROTRESNAK, ALTZARIAK ETA TAMAINU HANDIKO GAUZAK

ELECTRODOMÉSTICOS, MUEBLES Y ENSERES VOLUMINOSOS PROCEDENTES DE VIVIENDAS

GARBIGUNEAREN ORDUTEGIA HORARIO DEL GARBIGUNE

MUNGIA GARBI

| Astelehenetik Ostiralera / De Lunes a Viernes | Larunbatetan / Sábados |
| --- | --- |
| 9:00-13:30<br>15:30-18:00 | 9:00-13:30 |

Dejar los enseres a pie de calle y al lado de los contenedores ensucia nuestro pueblo.


MUNGIA UDALA

MUNGIA GARBI

TRESNA HAUEK ORDUZ KANPO UTZI IZAN DIRA ETA HEMEN UTZIKO DIRA JASOTZEKO HURRENGO EGUNERA ARTE

Uzteko ordutegia: ASTELEHENA ETA EGUAZTENA 20:00etatik 22:00etara
Deitu aurretik. TFNOA.: 94 435 57 50
Biltzeko ordutegia: MARTITZEN ETA EGUENATAN GOIZEZ

ESTOS ENSERES HAN SIDO DEPOSITADOS FUERA DE SU HORARIO Y PERMANECERÁN AQUÍ HASTA EL PRÓXIMO DÍA DE RECOGIDA

Horario de depósito: LUNES Y MIÉRCOLES DE 20:00-22:00
Avisar antes. TEL.: 94 435 57 50
Horario de recogida: MARTES Y JUEVES POR LA MAÑANA

Si ves esta pegatina, quiere decir que la dueña o dueño de este mueble no ha llamado al servicio de recogida previo.

**Todos los lunes, miércoles y viernes y siempre de manera gratuita**

Son muchas las personas que todavía dejan los enseres y voluminosos al lado de los contenedores. Esto, además de ensuciar las calles, hace que el personal de limpieza de calles deba dedicarse a la tarea de recogida, reduciendo la calidad del servicio de otras labores.

Funcionamiento del servicio:

Llamar SIEMPRE al teléfono 94 435 57 50 para concertar día, hora y lugar de depósito.

En Mungia disponemos de un servicio de recogida que funciona los lunes, miércoles y viernes, adecuando la disponibilidad de ambas partes, y es totalmente gratuito. Las vecinas y vecinos solo deben avisar del depósito de voluminosos de forma previa a la recogida, llamando por teléfono.

**Consulta el apartado 'Mungia Garbi' para más información: http://www.mungia.org/es/tamainu-handiko-gauzak**

Para concienciar a la ciudadanía, el Ayuntamiento colocará unas pegatinas que recordarán el procedimiento para la retirada de voluminosos y el teléfono de aviso. Asimismo, se colocará otra pegatina relativa a aquellos residuos cuyo depósito no haya sido avisado, señalando su permanencia en el lugar hasta el próximo día de recogida.

Funcionamiento del servicio: Llamar SIEMPRE al teléfono 94 435 57 50 para concertar día, hora y lugar de depósito.

# Irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dira Erribide kalean



Erribide kaletik doazen oinezkoek hobekuntza handia igarriko dabe laster.

## Mejora de accesibilidad en la calle Erribide

El planteamiento incluye el rebaje de aceras, el cambio de baldosas, formación de rampas y supresión de bordillos. Asimismo, se mejorarán sus cruces con las calles Itxaropena y Mastibarrena. El presupuesto de las obras asciende a 88.990€.

**Espaloiak beheratu eta arrapalak sortu beste batzuen artean**

Mungiarrak kalean seguru eta lasai ibiltea gure betiko helburuetako bat. Hori dala eta, gure kale, espaloi, zebrabide eta abar jagotea lehentasuntzat daukagu.

Horregaitik, **Erribide kalearen** irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dira. Planteamendu honetan, indarrean dagoan araudiak agintzen dituan hobekuntzak egingo dira zebrabideetan. Hau da, espaloiak beheratu, baldosak aldatu, arrapalak sortu eta zintarriak kenduko dira.

**Itxaropena kaleagaz** egiten dauen bidegurutzeko zebrabideari jagokonean, espaloiak aurreratzea aurreikusten da eta, erdian, auto fluxua oztopatu barik, isleta bat jartzea ibilbide luzea laburtzeko eta oinezkoari babes handiagoa eskaintzeko. Bestalde, zebra-bidea **Mastibarrena kaleko** bidegurutzearen beste aldera eroango da. Izan bere, kale horretatik Erribide kalera sartzen diran autoen gertutasunak ez dau-eta oinezkoaren segurtasuna bermatzen. Obra horreek guztiak egiteko **88.990 euro bideratuko dira**.

# Umeentzako 12 gune hobetuko dira

Pasa dan zemendian hasi ginan herriko umeentzako jolas-guneak konpontzeko lanakaz. Guztira, 12 espazio konponduko dira umeek hobeto jolastu daien bertan. Orokorrean, jolas-tresnak konpondu egingo dira eta apurtuta dagozan zatiak edo piezak aldatu. Horren ganera, gune batzuetan behea bere aldatu egingo da. Lan horreetarako bideratu dan aurrekontua 15.000 eurokoa da.



Lauaxeta eta Landetxo kaleen artean dagoan jolas-gunea konponduko diran jolas-guneen artean dago.



15.000 euro bideratuko dira Gamiz Bideko jolas-gune hau bezalako umeentzako espazioak hobetzeko.

Mungia verá mejoradas 12 de sus zonas de juegos infantiles. Y es que, se han destinado 15.000 euros a la reparación y mejoría de estos espacios, tanto a los propios juegos como al pavimentado, para que las niñas y niños puedan disfrutar del ocio al aire libre.

| Konponduko diren guneak: | |
| --- | --- |
| Palado | Torrebillela 1 |
| Iparralde | Torrebillela 2 |
| Iparralde 2 | Torrebillela 3 |
| Gamiz Bidea | Foru Enparantza |
| Garabilla Margolari | Goietako Plaza |
| Gamiz Bidea 2 | Estazinoa |

# Cambio de alumbrado en el campo de fútbol de Legarda



El campo verá mejorada su iluminación con la nueva instalación de LEDs.

**Se sustituirán las lámparas actuales por unas LED**

**TRAS LA LICITACIÓN EL TRABAJO SE ADJUDICÓ A ELECTRIFICACIONES RADIMER, S.L POR UN IMPORTE DE 57.000 EUROS.**

La instalación de alumbrado del campo de fútbol de Legarda se ejecutó hace 10 años. Ahora, sus 24 lámparas de halogenuros, que producen un consumo de 57.600 w y están llegando al final de su vida útil, serán sustituidas por unas luminarias LED.

**LAS LUMINARIAS LED REDUCEN EL CONSUMO Y SU VIDA ÚTIL PUEDE LLEGAR A LAS 70.000 HORAS EN CONTRASTE CON LAS 5.000 DEL HALOGENURO.**

La nueva instalación contará con 40 proyectores LED, lo que posibilita apagar 24 focos durante los entrenamientos cuando los requerimientos lumínicos son menores. Esto supone un ahorro del 55% en la potencia instalada.

Legarda futbol-zelaian LED argiztapena jarriko da oin dagoanaren ordez. Horri esker jarritako potentziaren %55 aurreztea eta kontsumoaren murriztea ekarriko dau. Proiektu honetan 57.000 euro inbertituko dira.

# Urdulizko Ospitalera joateko autobus-geltoki gehiago Mungian, urtarriletik hasita

Udalean beharrezkoa ikusten izan dogu Mungiaren goiko aldean bere Urdulizko Ospitalera joateko autobus-geltokia eukitea. Igazko apiriletik hona ibili gara Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariakaz batera alkarlanean beharrizan honi erantzuna emoteko; eta hona hemen emaitza: aurten, urtarriletik aurrera, Urdulizko Ospitalera doan A3531 linea Leioan hasi eta Mungiako Palado kalean amaituko da.

Honeexek izango dira A3531 linearen geltokiak Mungian, bai ospitalera joateko, bai bueltatzeko:

**Plentzia-Gorliz-Mungia** komunikatzen dauan A3537 linea bere Mungiaren goiko zonalderaino helduko da urtarriletik aurrera. Hau da, linea Plentzian hasi eta Mungiako Palado kalean amaituko da.

**Bilbo-Laukiz komunikatzen dauan A3225 linea** Mungiaraino luzatuko da, Palado kaleraino hain zuzen bere.

| A3531 Leioa-Urdulizko Ospitalea-Gatika-Mungia | |
|---|---|
| MUNGIA-URDULIZKO OSPITALEA | URDULIZKO OSPITALEA-MUNGIA |
| Palado | Atxuri |
| Aita Elorriaga | Lauaxeta |
| Erribide | Trobika (Udaletxearen aurrean) |
| Elorduigoitia | Goieta |
| Lauaxeta | Palado |
| Atxuri | |

## Nuevas paradas de autobús en Mungia para ir al Hospital de Urduliz

Tras las gestiones realizadas el pasado mes de abril conjuntamente con la Diputación Foral de Bizkaia, a partir de enero la línea A3531 se verá ampliada con paradas en Atxuri, Trobika, Goietako Plaza, Palado, Aita Elorriaga, Erribide y Elorduigoitia, además de la que ya estaba en Lauaxeta. Esto facilita la accesibilidad de vecinas y vecinos al Hospital de Urduliz.

# El Ayuntamiento de Mungia realiza 9 contrataciones laborales



Mungialdeko Behargintza trabajará con las personas contratadas para mejorar sus posibilidades de inserción laboral.

## 9 pertsona kontratatu dira Mungian Eskualdeko Enplegu Planaren bidez

Mungialdea osatzen dogun udalek guztira 19 langabetu kontratatu doguz Eskualdeko Enplegu Planaren markoaren barruan. Kontratu horreen helburua lan-merkatuan sartzeko arazorik gehien daukien pertsonei bidea erraztea da.

Programaren barruan, Mungiako Udalak 6 hileko 9 lan-kontratu egin ditu, 2017ko maiatzean bukatuko diranak. Langileok eremu desbardinetan egingo dabe lan herriari zerbitzua emoteko.

Ganera, pertsona horreek Mungialdeko Behargintzako laguntza bere jasoko dabe; behin enplegu programa bukatuta, lan munduan sartzea erraztuko deutsen alderdi pertsonal eta kurrikularrak lantzeko.

## Enmarcado en el Plan de Empleo Comarcal

Una vez más los Ayuntamientos de Mungialdea realizamos la contratación de 19 personas desempleadas, acción enmarcada dentro del Plan de Empleo Comarcal. Estas contrataciones tienen por objeto facilitar el acceso al mercado laboral de personas con especiales dificultades de inserción.

Entre los colectivos destinatarios están las personas en situación de desempleo de larga duración, las mujeres, jóvenes y personas mayores de 55 años de edad, así como las personas perceptoras de Renta de Garantía de Ingresos (RGI) y, en su conjunto, quienes están en situación de riesgo de exclusión social.

**Desde el Ayuntamiento de Mungia se han realizado, en el marco del programa, 9 contrataciones laborales de 6 meses de duración que finalizarán en mayo.**

Las iniciativas que van a desarrollar las personas contratadas están destinadas a la comunidad como son el estudio y dinamización del sector hostelero, la recuperación y mantenimiento de entornos públicos.

El coste total del programa para el Ayuntamiento de Mungia asciende a los 149.677,61 euros, estando financiado el mismo en 103.126,16 euros, es decir, el 68,89% del importe total, por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

Igualmente estas personas reciben el apoyo de los servicios de orientación laboral de Mungialdeko Behargintza con el objeto de trabajar aspectos personales y curriculares que permitan facilitar su inserción laboral una vez finalizado el programa de empleo.

# Gabonetako Azoka arrakastatsua

Euskal Pizkundearen Etorbideak Gabonetako Azoka jaso dau abenduan. Ekimen honen helburua herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzea izan da, ohiko salmenta postuez gain, kalean beste bat eskainita.

Azokaren bigarren edizino honetan Aitor Aurrekoetxea egon zan taloak eskaintzen eta, horren ganera, umeentzako tailerrak bere egon ziran.


Aurtengoan Euskal Pizkundearen Etorbidean jarri dira postuak eta herritar asko izan dira bertara gerturatu direnak.

En su segunda edición la Gabonetako Azoka volvió a ser un éxito. Esta proporcionó a hosteleras, hosteleros y comerciantes otra plataforma para llegar a su clientela.

**19 parte-hartzaileak:**
Bitxiko Oinetakoak, Galtzagorri, Gurea Modak, Iranai, Iris Moda, Pitxiak by Ozamiz, Plisti Plaust, Puk&Co, Ryelma bazarra, Sésamo moda, Gelati Gelati eta Modas West merkataritza saltokiak; bestetik, Ainarita Cerámica, Egurregaz, Kattalin Bitxiak, Ariane Rasines, Maikel Rivas, Urperatu eta Loft Di Laura artisauak.

# Herriko komertzioari indarra emoten

Dentro de la Gala del Comercio, un año más se repartieron los premios del Concurso de Escaparates de Mungia.

Mungiako Merkatari eta Ostalarien Alkarteak, Mungialdeko Behargintzaren eta Udalaren laguntzagaz, Mungiako Erakusleihoen Lehiaketa antolatu eban abenduan. Ekimen honek urtero-urtero batzen ditu merkatari, bezero eta mungiar asko Andra Marin ospatzen dan Merkataritza Galan. Beronen helburua, alde batetik, herriko merkatariek apaindutako erakusleihoak saritzea da eta, bestetik, euren saltokietako bezeroen fideltasuna bere saritzea.


Abenduan ospatutako galan honeek izan ziran sarituak: 1. Saria: 'Pet on pet'; 2. Saria: 'Marsala Artisautza'; 3. Saria: 'Calzados Ibili'. Ikusleentzako erakusleihorik gogokoena: 'Golzarri Farmazia'. Eta amaitzeko, Olentzero saria: 'Inmobiliaria Beitia'.

# Olentzerok erosketetan laguntzen dau!

Mungiako Merkatari eta Ostalarien Alkarteak, Izenaduba Basoak eta Mungiako Udalak Olentzero Bonoa jarri eben martxan. Abenduaren 16, 17 eta 18an Olentzeroren Etxea bisitatzera joan ziran familia guztiei, sarrereagaz batera, *Olentzero Bonoa* oparitu eutsien. Era bitako bonoak egon ziran: batetik, Merkataritzako establezimenduetan erabiltzekoak, 10 euroko baliokoak; eta, bestetik, ostalaritza establezimenduetan erabiltzekoak, 5 euroko baliokoak. Bonoak abenduaren akabura arte erabili ahal izan ziran herriko edozein establezimendutan.

# Las y los mungiarras junto a personas afectadas por el síndrome de Dravet

### Errosko Solidarioaren Jaia

Errosko Solidarioaren Jaiko diru irabaziak *Asociación Desafía Drave*t-era bideratu dira, Mungian gaixotasun hau daukan ume bati laguntzeko.



El roscón solidario fue repartido por Mungia Saskibaloi Taldea, la periodista de etb Olga Zabalgogeaskoa y la corporación municipal, en colaboración con la Asociación de Mujeres Diz-Diz.

Por decimotercer año consecutivo Mungia ha llevado a cabo la iniciativa Errosko Solidarioaren Jaia. En esta ocasión, todos **los beneficios y donativos** que se han obtenido a través de esta iniciativa serán íntegramente **destinados a la Asociación Desafía Dravet,** dedicada a la investigación y la asistencia de personas que padecen el síndrome de Dravet.

Con ello se pretende ayudar a Mikel, un niño de 11 años de nuestra localidad, afectado por esta enfermedad neurodegenerativa, que es, en la mayoría de los casos, resistente al tratamiento farmacológico.

# Pedaleando juntas y juntos por la Ataxia de Friedreich




Durante la mañana se organizaron circuitos de educación vial, talleres de reparación de bicicletas y otras actividades.

La segunda edición de la Marcha de Mountain Bike Solidaria STOP-FA MTB, organizada por las asociaciones *Aire Norte* y *ner group,* en colaboración con el Ayuntamiento, reunió en octubre a casi 400 ciclistas que pedalearon por la Ataxia de Friedreich. La iniciativa recaudó fondos para iniciar los ensayos clínicos que den con la cura de esta enfermedad que padece un niño mungiarra.

**Los 9.000 euros de las inscripciones se donaron a la Asociación STOP-FA MTB,** una entidad sin ánimo de lucro que lucha por conseguir fondos para las investigaciones que busquen la cura a esta enfermedad degenerativa.

La jornada culminó con una alubiada popular.

### Friedreich gaixotasuna daukienen alde

Ataxia de Freidreich gaixotasuna osatuteko fondoak lortzeko intentzinoagaz, bigarren urtez STOP-FA MTB Mountain Bike Martxa Solidarioa egin zan urrian.

# Hamburguesa solidaria

El pasado 11 de noviembre, Óscar Cavia organizó un evento en su restaurante, *Ganene Jatetxea* de Laukiz, con la colaboración de José Ignacio Isla, de Carnicerías Isla. En él, el público pudo degustar gratuitamente sabrosas hamburguesas y colaborar con un donativo. Se recaudaron 2.150,56 euros que, junto a carne sobrante donada por Cavia y diversos productos de primera necesidad, fueron destinados al Banco de Alimentos de la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales.

# Emakumeek jasaten daben indarkeriaren kontra-ekintzen egitaraua (zemendiak 25)





El taller de teatro de la Asociación de Mujeres Diz-Diz vuelve a poner en escena y expresar su firme rechazo a todo tipo de violencia contra las mujeres. *Enamorarse si, cegarse no* fue el mensaje de la obra “Tú + Yo = es Error o amor”.




Por un lado, cada año más mujeres aprenden a hacer frente a la violencia en el ya tradicional taller de autodefensa feminista. Al finalizar el taller, perciben que se sienten con más fuerza y recursos para enfrentarse a una agresión. Por otro lado, Olalde Aretoa acogió durante tres sábados por la mañana a aquellas mujeres que quisieron trabajar su autoestima y su empoderamiento personal y colectivo.



Aurten bere Mungiako herriak bere laguntza eta babesa eskaini deutse indarkeria matxista jasan daben edo jasaten daben andra guztiei. Hori herri honetan era horretako jarreren aurrean daukagun *zero tolerantzia*ren beste erakusgarri bat da. Mungiak Indarkeriari EZ!




## Mungian Beldur Barik!

25 lan izan dira; danak bardintasunaren, askatasunaren eta errespetuaren aldeko jarrerea erakutsi deuskuenak; eta, aldi berean, eraso sexisten kontrako jarrera argia bere bai. 100 ikasletik gora izan dira parte hartu dabenak lanak egiten, eta lanotatik hiru izan dira saria jaso dabenak Berdur Barik Lehiaketaren VI. Edizino honetan. Zorionak sarituei!



Gazteek aukerea izan dabe errespetuzko sexu harremanen eta tratu onen ganeko galderak zuzenean sexologo bati egiteko. Horretarako, abenduaren 2an, Sexologiako Aholkularitza Zerbitzua kalera atera zan, Gaztegune ondora, gura dabenei informazinoa eskaintzeko.

# Badator San Antontxu

Urtarrilaren 18an mungiarrok hainbeste maite dogun **San Antontxu Eguna** ospatuko dogu. Eguaztenean zehar, Ferialekuan ganaduaz ganera, makineria, erreminta, fruta-arbola eta landara apaingarriak ikusteko eta erosteko aukerea egongo da. Beste alde batetik, erdiguneko plaza, kale eta txokoetan, bertoko eta eskualdeko produktuak eta euskal artisau-lanen erakusketa eta salmentak egongo dira.

Zelan ez, urterik urtera handiagoa egiten doan *Euskadiko Odoloste eta Txorizoen XXI. Sariketa* bere ez da faltako Udalaren karpan goiz osoan.

Elorduigoitia kaletik urtengo dauen Txu-Txu trenean dibertitzeko aukerea bere egongo da eta Amilotx Dantza Taldearen emonaldiak animatu egingo gaitu, herriko giroa alaituta, Gure Ametsa Txistulari Taldea eta trikitilariakaz batera.

Ezin dira aitatu barik itxi profesionalen arteko eskupelotako ohiko binakako partiduak, Olalden egingo dan *Txanogorritxoren* haur antzezlana eta arratsaldean Luhartz taldeak ekarriko dauen erromeria.

Jentea jai giroan sartzeko prest dago eta hori argi erakusten dau Benito Lertxundik 14an Olalden eskainiko dauen kontzertuagaz; izan bere, sarrerak abendutik dagoz agortuta.









## ¡Ya llega San Antontxu!

La fiesta que todas las y los mungiarras esperábamos llega el próximo día 18. Su gran feria ofrecerá a vecinas y vecinos y demás visitantes la ocasión de ver y comprar ganado, maquinaria, herramientas, árboles frutales y plantas en el recinto ferial. Igualmente, el centro de la localidad recibirá puestos de artesanía y productos autóctonos mientras que la carpa municipal acoge el XXI. Concurso de Morcillas y Chorizos de Euskadi. El día contará con la actuación de Amilotx Dantza Taldea, pasacalles, txistularis y romería entre otros, además del esperado concierto de Benito Lertxundi.

MUNGIA UDALA

**ARGITARATZAILEA:**
MUNGIAKO UDALA: Trobika, 1 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 16 / komunikazioa@mungia.eus / www.mungia.org
**ALE KOPURUA:** 7.000
**LEGE GORDAILUA:** BI-2224/2012

Mungin geure ikurrek